

Pasai Antxoko liburutegiak haurren Gabonetako marrazki lehiaketa deitu du

Azaroaren 30 ean amaituko zaie lanak aurkezteko epea Udalerrian bizi diren umeei

Pasaia. Pasai Antxoko liburutegiak, urtero ohi duenez, Marrazki eta Pintura Lehiaketa antolatu du. XLIV. edizio honetara lanak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da. Udalerrian bizi diren 4 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago ekimen hau.

Pasaiaiko ikastetxe eta ikastoletan ikasten ari diren haurrek, eskola horietan bertan eman dezakete izena. Pasaiaikoak izan eta udalerritik kanpo ikasten ari diren haurrek, Pasai Antxoko udal liburutegira eraman beharko dituzte obrak 10.00etatik 12.45era eta 16.00etatik 19.45era.

Lehiaketaren gaia Gabonak izango da. Adinaren arabera bost maila banatu dituzte. Epaimahaiak talde bakoitzeko hiru lan hautatuko ditu. Epaimahaia pintura eta artearen munduko izen handiek osatuko dute.

Epaimahaiakideen erabakia apelaezina izango da. Lanek kalitate edo mailarik ez badute, epaimahaiak saria hutsik uzteko ahalmena izango du.
>a.m.